

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 28an hartutako erabakiaren laburpena: 2017ko inauterietan parte hartuko duten konpartsei diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS(Identifikatzailea):321513

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak:

Elkarteak, baldin eta gisa legez eratuta badaude, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den dagokien Erregistro Ofizialean eta Herritar Erakundeen Udal Erregistroan erregistratuta badaude, eta egoitza Gasteizko udalerrian badute.

Bigarrena. Helburua:

2017ko inauterietan konpartsen parte-hartzea sustatzea.

Hirugarrena. Oinarriak:

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 28an egindako ohiko bilkuran onartutakoak, ALHAOn argitaratuko direnak.

Laugarrena. Zenbatekoa:

68.500,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

2016ko azaroaren 28ra arte.

Gasteizen, 2016ko urriaren 28an

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE